

1. ARIKETA

ARIKETA HAU AGIN AHAL IZATEKO MATERIALA: ESKUKO KAMERA BAT

Eskuko kamera bat hartuta:

- 1.- Sei egongela desberdinen planorik zabalena egin.
- 2.- Sei egongela horietatik egokiena dena aukeratuta, sei ikuspuntu desberdinetatik, ahalik eta planorik zabalena eman.
- 3.- Sei ikuspuntu horietatik baliagarrienen zerrenda bat egin eta baliagarritasun horren zergatiak adierazi. Bestalde baliagarriak ez diren ikuspuntuen baztertzearren arrazoi bisualak eman.
- 4.- Baliagarri den ikuspuntu horietako batean, sei ehun eta kolore desberdinak jantziko dituen subjektu bat sartu. Jantzi eta kolore desberdin bakoitzeko plano bat egin.
- 5.- Ehun eta kolore erabilgarrien zerrenda bat egin eta zergatiak adierazi. Gauza bera erabilgarriak ez diren ehun eta koloreekin.
- 6.- Aukeratutako egongelan, aukeratutako ikuspuntutik, aukeratutako ehun eta koloreak jantzita dituen subjektuaren plano mota desberdinak egin.
- 7.- Aukeratutako ehun eta koloreak jantzita dituen subjektuaren planoak egiteko sei kale desberdin aukeratu.
- 8.- Egindako planoak ikusi eta aztertu:
 - a) espazioak irudian betetzen duten papera.
 - b) ikuspuntuak betetzen duen papera.
 - d) jantzi eta koloreek betetzen duten papera.
 - e) kalean grabatu izanaren ezaugarriak.

9.- HAUSNARKETA HONEK BALIAGARRIA BEHARKO LUKE AUKERATUKO DITUGUN ESPAZIO, KAMERAREN IKUSPUNTU, PLANO ETA AHUNAK ZAINTEKO AURRERANTZEAN EGINGO DITUGUN PLANOETAN

Tela moten zerrenda bat hemen aurkitu dezakezue. Noski ez dituzu denak erabili beharko hartu bost edo sei eta ikusi zein modutan erantzuten duten irudiari begira.

<http://www.todotelas.cl/definicion-telas.htm>

Koloreei buruzko argibide batzuk ere aurkituko dituzue ondoko honetan.

<http://www.desarrolloweb.com/articulos/1491.php>